



**Lehendakaria / Presidente**

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

**Resolución 4/2017 Ebazpena**

Recurso 11/2016 Errekurtsoa

**Kidea / Vocal**

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

**Idazkari - Kidea / Vocal Secretaria**

María Yeregui Hernández

Gipuzkoako Foru Kontrataziorako Zentralaren bidez gas naturalaren hornidura kontratatzeko esparru-akordioa GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresarekin amaitzea ebazteko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko diputatuaren abenduaren 9ko 1228/2016 Foru Aginduaren aurka MULTIENERGÍA VERDE S.L. sozietateak kontratazio arloan jarritako errekurtso berezian (X16023) Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2017ko otsailaren 23an egindako saioan, goran adierazten diren kideak bertan zirela, erabaki hau hartu du guztien adostasunarekin.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MULTIENERGÍA VERDE S.L. contra la Orden Foral 1228/2016, de 9 de diciembre, del diputado del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, por la que se resuelve concluir con la empresa GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. el acuerdo marco para la contratación del suministro de gas natural a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa (X16023), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 23 de febrero de 2017, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2016ko abenduaren 28an idatzi bat sartu zen Auzitegiaren erregistrora. Idatzi hartan, (...) jaunak, MULTIENERGÍA VERDE S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, errekurtso berezia jarri zuen kontratazio arloan ebazpen honen goiburuan aipatutako Foru Aginduaren aurka.

Idatziarekin batera, esku-hartzen duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak, errekurritutako Foru Agindua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko (SPKLTB) 44.1. artikuluan aipatzen den aurretiko iragarkia, kontratazio-organoaren aurrean 2016ko abenduaren 28an

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** El día 28 de diciembre de 2016 tuvo entrada en el registro del Tribunal un escrito por el que (...), actuando en nombre y representación de MULTIENERGÍA VERDE S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra la orden foral referida en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito se acompañan el documento que acredita la representación de la persona interviniente, la orden foral recurrida, el anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP), efectuado mediante escrito presentado el 28 de diciembre de



aurkeztutako idatzi bidez egina, eta errekurtsogileak bere eskubidearen oinarritzat erabiltzen dituen dokumentuak gaineratzen dira.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak errekurtsoaren kopia helarazi zion Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta kontratazio-espedita nahiz errekurtsoari buruzko dagokion txostena eskatu zizkion. Hori guztiori abenduaren 30ean jaso zen Auzitegian.

**HIRUGARRENA.-** SPKLTBko 46.3. artikulua betez, GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. sozietateari errekurtsoaren berri eman zitzaion, bost egun balioduneko epean arrazoibideak aurkeztu ahal izateko, eta hala egin zuen 2017ko urtarrilaren 9an aurkeztutako idatzi bidez.

**LAUGARRENA.-** Errekurtsoa esleipen-egintzaren aurka jarri denez, kontratazio-espeditaren izapidea bertan behera geratu da SPKLTBko 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2016 ante el órgano de contratación, y los documentos en los que la recurrente funda su derecho.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió copia del recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad y le solicitó el expediente de contratación y el correspondiente informe acerca del recurso. Todo lo cual se recibió en el Tribunal el día 30 de diciembre.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 46.3 TRLCSP, se dio traslado del recurso a GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones, lo que hizo mediante escrito presentado el día 9 de enero de 2017.

**CUARTO.-** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 45 TRLCSP.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoa onartua izateko aukera

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau Gipuzkoako Foru Kontrataziorako Zentralaren bidez gas naturalaren hornidura kontratatze esparru-akordioaren esleipen-egintzaren aurka jartzen da, non eratoritzen diren kontratuen balio estimatua 33.826.350,63 euroa baita, BEZ aparte.

Horrenbestez, gerora erregulazio harmonizatupean SPKLTBko 15.1.b) artikuluan barneratzen diren hornidura-kontratuak egiteko esparru-akordio bat denez, errekurtutako egintzari kontratazio arloko errekurtso berezia jarri ahal zaio 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) ataletan horrela xedatzen baita. Eta horren berri izateko eskumena Auzitegiari dagokio, Kontratazio arloko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un acuerdo marco para la contratación del suministro de gas natural a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa en el que el valor estimado de los contratos derivados alcanza la cifra de 33.826.350,63 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, tratándose de un acuerdo marco para la posterior celebración de contratos de suministro sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 15.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlos los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el



Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1. artikuluan hala esleitzen baitzaio.

artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.** Errekurtsoa jarri du Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek, eta jarri du, gainera, 44.2 artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

### Gaiaren edukia

### Fondo del asunto

**HIRUGARRENA.-** 2016ko urriaren 4ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren akordioz kontratazio-espeditentea onartu zen, prozedura irekiz eta izapide arruntarekin, gas naturalaren hornidura kontratatzeke esparru-akordio bat amaitzeko eta administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoaren pleguak onartu ziren. Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko urriaren 8an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urriaren 13an eta Estatuko Aldizkari Ofizialean urriaren 18an.

**TERCERO.-** Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 4 de octubre de 2016 se aprobó el expediente de contratación, por el procedimiento abierto y de tramitación ordinaria, para la conclusión de un acuerdo marco para la contratación del suministro de gas natural y se aprobaron los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas. El anuncio de licitación fue publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea el 8 de octubre, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 13 de octubre y en el Boletín Oficial del Estado el 18 de octubre de 2016.

Esparru-akordioaren helburua da Gipuzkoako Foru Kontrataziorako Zentralaren bidez gas naturala hornitzea espedientera atxikitako erakundeen eraikin eta instalazioetarako.

El acuerdo marco tiene por objeto el suministro de gas natural a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa para los edificios e instalaciones de las entidades adheridas al expediente.

Esleipen-irizpideak Administrazio Klausula Partikularren Pleguko (AKPP) IV. eranskinean zehazten dira, eta honakoak dira:

Los criterios de adjudicación están definidos en el Anexo IV del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP) y son los siguientes:

#### Automatikoki balioesteko irizpideak

#### Criterios a valorar automáticamente

1. Prezioa (guztira), % 75
2. Prezioen eboluzioaren indizea, % 5

1. Precio (total), 75%
2. Índice de evolución de precios, 5%

#### Balio-judizioaren mendeko irizpideak

#### Criterio sujeto a juicio de valor

Bezeraari emandako arretaren kalitatea, % 20

Calidad de atención al cliente, 20%

Eskaintzak aurkezteko epean bost

En el plazo de presentación de ofertas se



lizitatzailereren proposamenak jaso ziren:

ENDESA ENERGÍA, S.A.U.

IBERDROLA CLIENTES, S.A.U.

EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U.

MULTIENERGÍA VERDE, S.L.

GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G. S.A.

2016ko azaroaren 25ean 2 zenbakidun gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoa egin zen. Gutun-azal horietan lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazio teknikoa barneratzen zen, balio-judizio baten baitan zenbatzeko esleipen-irizpideari buruzkoa; Mahaiak dokumentazioa hura balioesteko ardura duen organo teknikoari helaraztea adostu zuen eta hark txostena igorri zuen 2016ko azaroaren 25ean.

2016ko abenduaren 1ean 3 zenbakidun gutun-azalak irekitzeko egintza burutu zen eta kontratazio mahaiak EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U. sozietatea baztertu egin zuen bere proposamen ekonomikoa prezioen eboluzioaren indizea barneratzen ez zelako, eta IBERDROLA CLIENTES S.A.U. sozietatea ere baztertu zuen bere proposamen ekonomikoa, gainera, ez zetorrelako bat administrazio klausulen plegura atxikitzen zen ereduarekin.

Balio-judizioaren baitako irizpideak balioesteko txosten teknikoa eta lizitatzailleek aurkeztutako eskaintza ekonomikoa aztertu ostean, kontratazio mahaiak esparru-akordioa GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G, S.A. enpresarekin amaitzea proposatu zuen, esleipen-irizpideei jarraituz ekonomikoki eskaintza onuragarriena izateagatik.

**LAUGARRENA.-** Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuaren abenduaren 9ko 1228/2016 Foru Agindu bidez, esparru-akordioa aipatutako enpresarekin amaitzea erabaki zen.

Foru Agindu hori 2016ko abenduaren 12an

recibieron proposiciones de cinco licitadores:

ENDESA ENERGÍA, S.A.U.

IBERDROLA CLIENTES, S.A.U.

EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U.

MULTIENERGÍA VERDE, S.L.

GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G. S.A.

El 25 de noviembre de 2016 se llevó a cabo el acto público de apertura de los sobres nº 2 que contenían la documentación técnica presentada por los licitadores relativa a los criterios de adjudicación cuya cuantificación depende de un juicio de valor; documentación que la Mesa acordó entregar al órgano técnico encargado de su valoración, el cual emitió informe en fecha 25 de noviembre de 2016.

El 1 de diciembre de 2016 tuvo lugar el acto de apertura de los sobres nº 3 en el que la Mesa de Contratación excluyó a EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U. porque en su proposición económica no incluía el índice de evolución de precios y a IBERDROLA CLIENTES S.A.U. porque, además, su propuesta económica no se ajustaba al modelo que se adjuntaba al pliego de cláusulas administrativas.

Tras analizar el informe técnico de valoración respecto a los criterios sometidos a juicio de valor y la oferta económica presentada por los licitadores, la Mesa de Contratación propuso concluir el acuerdo marco con GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G, S.A. por ser la oferta económicamente más ventajosa de acuerdo con los criterios de adjudicación.

**CUARTO.-** Mediante Orden Foral 1228/2016, de 9 de diciembre, del diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, se resolvió concluir el acuerdo marco con la citada empresa.

Contra esta orden foral, que fue remitida en



igorri zen eta abenduaren 14an errekurtsogileari jakinarazi zitzaion. Haren aurka MULTIENERGÍA VERDE S.L. sozietateak errekurtsio hau jarri du, non GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G. sozietatearen aldeko esleipena bertan behera utzi eta kontratua berari esleitzeko eskatzen den.

Errekurtsogileak, lehenik eta behin, espedienteko dokumentu ezberdinetako daten arteko inkongruentzia nabarmentzen du.

Ondoren, automatikoki balioesteko irizpideak aplikatzerakoan (hots, prezioaren eta prezioen eboluzioaren indizeak) huts egiteak egin direla azaltzen du.

Halaber, uste du ez dela behar bezala balioetsi "bezeroari emateko arretaren kalitateari" dagokion irizpidea, eta elementu alderagarri modura Zarauzko Udalak antzeko kontratu baten lizitazioan erabilitako teknika batekin bere eskaintzaren gainean egindako balioespena barneratzen du.

Azkenik, AKPP pleguaren azaleko 29. atalera joz, irizten du hala GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G., S.A. sozietateak nahiz ENDESA ENERGÍA, S.A.U. sozietateak azpikontratutako bezeroaren arretarako zerbitzuak eskaini dituztela beren proposamenetan eta, ondorioz, baztertu egin beharko zirela.

**BOSGARRENA.-** Errekurtsogileari, lehenik eta behin, zalantzazkoa iruditzen zaio 2016ko abenduaren 1ean kontratazio mahaiak proposamen ekonomikoak ireki, eskaintzak aztertu, bi lizitatzailak baztertu, irizpide bakoitzaren haztapenak kalkulatu, akta idatzi eta esleipendunaren izenean lizitazio-iragarkiak ordaintzeko gutuna izapidetu eta inprimatzeko egintza horren azkar egitea, 34 minututan. Alegatzen duenez, are ulertezinagoa da eskaintzak balioesteko txostena abenduaren 5ean egin izana, hau da, iragarkiak ordaintzeko gutuna inprimatu eta 4 egun beranduago.

fecha 12 de diciembre y notificada a la recurrente el 14 de diciembre de 2016, MULTIENERGÍA VERDE S.L. ha interpuesto el presente recurso, en el que solicita que se anule la adjudicación a favor de GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G. y se le adjudique el contrato a ella.


La recurrente pone en primer lugar de relieve la incongruencia entre las fechas de diferentes documentos del expediente.

Expone a continuación que se ha producido error en la aplicación de los criterios a valorar automáticamente, es decir, el precio y el índice de evolución de precios.

Considera también que no se ha valorado correctamente el criterio "calidad de atención al cliente", y aporta como elemento comparativo la valoración de su oferta realizada por una técnica del Ayuntamiento de Zarautz con ocasión de la licitación de un contrato similar por parte del citado Ayuntamiento.

Finalmente, invocando el apartado 29 de la carátula del PCAP, sostiene que tanto GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G., S.A. como ENDESA ENERGÍA, S.A.U. han ofertado en su proposición servicios de atención al cliente subcontratados, por lo que deberían haber sido excluidas.

**QUINTO.-** La recurrente cuestiona, en primer lugar, la rapidez con la que se desarrolló el 1 de diciembre de 2016, tan sólo en 34 minutos, el acto de la Mesa de Contratación de apertura de las proposiciones económicas, el análisis de las ofertas, la exclusión de dos licitadores, el cálculo de las ponderaciones de cada criterio, la redacción del acta y la gestión de tramitar e imprimir la carta de pago de los anuncios de la licitación a nombre de la adjudicataria. Alega que aún es más inexplicable que el informe de valoración de las ofertas se haya realizado en fecha 5 de diciembre, es decir 4 días después de que se imprimiese la carta de pago de los anuncios.



Bere txostenean kontratazio-organoak azaltzen duenez, proposamen ekonomikoak irekitzeko egintzara enpresa guztiak bertaratu ziren, errekurtsogilea izan ezik, puntuazioen Excel kalkulu-orria alde aurretik prestatu zen eta behin enpresei judizio-balioaren baitako irizpide bakarraren balioespenean emandako puntuazioen berri eman ostean, dagoeneko orrian sartuta zeudenak, proposamen ekonomikoen gutun-azalak ireki eta horien datuak barneratu ziren. Gaineratzen du kalkulua automatikoa dela, izan ere, formulak alde aurretik zeuden sartuta.

Orobat, adierazten du baztertutako lizitatzailleen proposamenetan zeuden erroreak oso nabarmenak zirela eta ez zela eztabaidarik ere izan, eta egintzara GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G., S.A. ordezkatzeko pertsona bertaratu zenez, hura izanik puntu gehien jaso zituena, Idazkaritza Teknikora jotzeko adierazi zitzaizkion ordainketa-gutuna jaso eta dokumentazioa eskatzeko.

Azkenik, adierazten du 2016ko abenduaren 5eko datarekin sinatutako balioespenerako txostena abenduaren 1ean ekitaldi publikoan pantailan aurkeztu zen Excel orria dela, eta abenduaren 5eko data inprimatu zen egunari dagokiola, izan ere, Excel orrian data automatikorako eremu bat da.

Auzitegiak egiaztatu ahal izan du txostenean adierazten diren alderdi guztiak espedientearen egiaztatuta daudela. Horrenbestez, errekurtsogileak lehen arrazoi honetan adierazitakoa ez da inolako irregulartasunik erabakitzeko modukoa.

**SEIGARRENA.-** “Prezioa” irizpideko puntuak kalkulatzeko izandako erroreari dagokionez, kontratazio-organoak aitortzen du errore bat dagoela, baina errore horrek ez duela eraginik proposamenen azken hurrenkeran eta, horrenbestez, esleipenean ere ez duela eraginik. Errorrea baztertutako bi eskaintzetako prezioak kentzean gertatu zen, izan ere, Excel orriak hutsik geratutako


En su informe el órgano de contratación explica que al acto de apertura de las proposiciones económicas asistieron todas las empresas a excepción de la recurrente, que la hoja de cálculo Excel de las puntuaciones se preparó previamente, y que, una vez informadas las empresas de las puntuaciones otorgadas en la valoración del único criterio sometido a juicio de valor, que ya estaban introducidas en la hoja, se abrieron los sobres de las proposiciones económicas y se introdujeron los datos de éstas. Añade que el cálculo es automático puesto que las fórmulas ya estaban introducidas.

Indica asimismo que los errores en las proposiciones de las licitadoras excluidas eran tan flagrantes que no se suscitó ningún debate, y que al estar presente en el acto la persona representante de GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G, S.A., que era la que más puntuación había alcanzado, se le indicó que acudiera a la Secretaría Técnica para recibir la carta de pago y el requerimiento de documentación.

Finalmente señala que el informe de valoración fechado y firmado el 5 de diciembre de 2016 es la hoja Excel que se presentó en pantalla en el acto público el día 1 de diciembre, y que la fecha del día 5 de diciembre es la de la impresión, ya que es un campo autofecha en la hoja Excel.

El Tribunal ha podido constatar que todos los extremos señalados en el informe están acreditados en el expediente, por lo que lo manifestado por la recurrente en este primer motivo no es determinante de irregularidad alguna.

**SEXTO.-** En cuanto al error en el cálculo de las puntuaciones del criterio “precio”, el órgano de contratación reconoce que efectivamente existe un error, pero que éste no afecta al orden final de las proposiciones ni, por tanto, a la adjudicación. El error se produjo al eliminar los precios de las dos ofertas excluidas, de forma que la hoja Excel asimiló la celda vacía a 0 y calculó para las



gelaxka 0 modura asimilatu zuen eta baztertutako bi eskaintzen kasuan % 100eko behea kalkulatu zuen, gainerako eskaintzetan puntuazio okerrak emanez.

Behin "prezioa" irizpideko puntuazioa berriro kalkulaturik, txostenean egiaztatzen denez, proposamenetako azken puntuazioaren arabera hurrenkera ez da aldatzen.

Errorea ohartarazita eta hura zuzendu ondoren esleipenaren emaitzan aldaketarik ez dagoela egiaztatuta, Auzitegiak ez du beharrezkotzat jotzen espedientearen balioespen-fasera atzeratzea.

"Prezioen eboluzioaren indizea" balioesteari dagokionez, errekurtsogilearen esanetan kalkulurako aurreikusitako formula aplikatzearen ondoriozko indizeak bat datoz proposamen ekonomikoak irekitzeko aktan islatzen direnekin, baina ez da pleguetan ezarritako irizpidearen arabera puntuatu. Horrenbestez, 5 puntu jaso behar zituen, eta ez 0.

"Prezioen eboluzioaren indizea" irizpidearen balioespena AKPP pleguaren IV. eranskinean horrela jasotzen da: *"100 puntuko kalkulu batean, 100 puntu jasoko ditu = % 0ko INDIZEAK eta 0 puntu jasoko ditu eskaintako INDIZE handienak eta gainerakoak bi mutur horien artean interpolatuko dira"*.

Errekurtsioak aurreikuspen hori aldatzen du modu nabarmenean, izan ere, bertan esaten denez *"behin lizitatzailerik bakoitzaren prezioen eboluzioaren indizea eskuratuta, pleguetan deskribatutako irizpidearen arabera puntuatu behar da, administrazioarentzat onuragarriena den indizeari 100 puntu (emandako datuen artean gehien jaitsi den prezioa) eta administrazioarentzat kaltegarriena den indizeari 0 puntu (emandako datuen artean gutxien jaitsi den prezioa) emanez, eta gainerakoa bi mutur horien artean interpolatzen da"*.

Espedientearen aztertu ondoren ikusi ahal izan denez, lizitatzailerik bakoitzak eskaintako prezioen eboluzioaren indizeak, errekurtsogileak zalantzan jartzen ez

dos ofertas excluidas una baja del 100%, dando puntuaciones incorrectas para el resto de las ofertas.

Una vez recalculada la puntuación del criterio "precio", el informe constata que el orden de puntuación final de las proposiciones no varía.

Advertido el error y comprobado que su rectificación no modifica el resultado de la adjudicación, el Tribunal no considera necesario retrotraer el expediente a la fase de valoración.

En lo que se refiere a la valoración del "índice de evolución de precios", la recurrente dice que los índices que resultan de la aplicación de la fórmula prevista para su cálculo coinciden con los reflejados en el acta de apertura de proposiciones económicas, pero no se han puntuado conforme al criterio establecido en los pliegos, por lo que debería haber obtenido 5 puntos en lugar de 0.

La valoración del criterio "índice de evolución de precios" se recoge en el Anexo IV del PCAP del siguiente modo: *"sobre 100, se otorgará 100 puntos al ÍNDICE = 0% y 0 puntos al ÍNDICE mayor de los ofertados y se interpolará el resto entre estos extremos"*.

El recurso altera manifiestamente esta previsión cuando dice que *"una vez obtenido el índice de evolución de precios de cada licitador, hay que puntuarlo conforme al criterio descrito en los pliegos, otorgando 100 puntos al índice más favorable para la administración (el precio que más ha bajado entre las fechas dadas), 0 puntos al más desfavorable para la administración (el precio que menos ha bajado entre las fechas dadas) y el resto se interpolan entre estos extremos"*.

Del examen del expediente resulta que los índices de evolución de precios ofertados por cada licitador, que la recurrente no cuestiona, han sido los siguientes:



dituenak, hauek izan dira:

ENDESA ENERGÍA, S.A.U.: % 6,5032  
MULTIENERGÍA VERDE, S.L.: % 6,7400  
GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G.: %  
6,4000

ENDESA ENERGÍA, S.A.U.: 6,5032%  
MULTIENERGÍA VERDE, S.L.: 6,7400%  
GAS NATURAL SERVICIOS S.D.G.:6,4000%

Errekurtsogileak proposatutako prezioen eboluzioaren indizea eskainitakoen artean handiena da. Horrenbestez, egin zaion 0 puntuko balioespena bat dator AKPP pleguan aurreikusitako balioespen-irizpidearekin.

El índice de evolución de precios propuesto por la recurrente es el mayor de los ofertados, por lo que la valoración de 0 puntos que se le ha otorgado se corresponde con el criterio de valoración previsto en el PCAP.

**ZAZPIGARRENA.-** Errekurtsogileak bere desadostasuna adierazi du “bezeroari emandako arretaren kalitatea” irizpidearen balioespenean eman zaion puntuazioarekin, izan ere, 3 puntu eman zaizkio eta EDP COMERCIALIZADORA S.A.U. sozietateari 20 puntu eman zaizkio eta, bere esanetan, biek ia gauza bera eskaintzen zuten. Alegatzen du kontratazio-organoak eskaintza guztien alderaketa subjektiboa egin behar duela, arrazoitu egin behar duela eta pleguetan balioesteko modura deskribatzen diren azpiatal bakoitzaren arabera banakatuta agertu behar dela eta, bere esanetan, balioespen-txostenean ez da halakorik egiten.

**SÉPTIMO.-** La recurrente manifiesta su disconformidad con la puntuación recibida en la valoración del criterio “calidad de atención al cliente”, 3 puntos, frente a los 20 puntos otorgados a EDP COMERCIALIZADORA S.A.U., de la que dice que ofertaba prácticamente lo mismo. Alega que el órgano de contratación debe realizar una comparación objetiva de todas las ofertas, que sea motivada y que aparezca desglosada por cada uno de los subapartados a valorar descritos en los pliegos, cosa que, en su opinión, el informe de valoración elude.

Esleipen-irizpide honen bidez, zeina formula aplikatuz automatikoki ebalua ezin daitekeen bakarra baita, “*eskuragarri jarritako giza baliabideak, gertu dauden bulegoen sarea, bezeroari arreta emateko bideak, gorabeherak kudeatzeko zerbitzua eta bestelako zerbitzuak (fakturazioa eta kontsumo-datuak) balioetsiko dira. Informazio gehiagorako ikus BTP pleguko 7. atala*”.

Mediante este criterio de adjudicación, que es el único no evaluable de forma automática por aplicación de fórmulas, “*se valorarán los recursos humanos puestos a disposición, la red de oficinas próximas, los canales de atención al cliente, el servicio de gestión de incidencias y otros servicios (facturación y datos de consumos)*”. Para más información ver apartado 7 del PPT”.

BTP pleguko 7. atalak horrela dio:

El apartado 7 del PPT reza así:

**“BEZEROARI EMANDAKO ARRETAREN KALITATEA**

**“CALIDAD DE ATENCIÓN AL CLIENTE**

*Kontsumitzaileari eman beharreko arretaren eta honekin izan beharreko harremanaren kalitatea zerbitzuaren ezaugarrien arabera erabakiko da; besteak beste, kontratazio gaietan, hala nola fakturazioari, kobrantzari, kontsumoen neurketari eta izenpetutako kontratutik etorritako gainerako alderdiei buruz kontsumitzaileari eman beharreko aholkuak hartuko dira kontuan.*

*La calidad de atención y relación con el consumidor se determinará atendiendo a las características del servicio, entre las que se encuentran el conjunto de aspectos referidos al asesoramiento del consumidor en materia de contratación, facturación, cobro, medida de consumos y demás aspectos derivados del contrato suscrito.*





*Enpresa esleipendunak, bere kudeatzailearen bitartez, eman beharreko laguntza eta aholkularitza emango dizkio erakunde bakoitzari aurreko paragrafoan aipatutako gaietan.*

*Enpresa esleipendunak, hurrengo horniduretarako kontratatu behar den tarifa jakinaraziko du, sarerako hartuneen kostua minimizatzearen. Era berean, kWh bakoitzaren kostuan eragin lezaketen gainerako parametroen berri emango du.*

*Lizitatzailleak bere eskaintzan kontsumoen eta fakturazioaren informazioarekin fitxategiak bidaltzeko aukera azaldu beharko du. Halaber, adieraziko da eta, behar bada, argituko da informazio mota hori Interneten bidez eskaintzen ote den.*

*Jasotako eskaintzak "Bezeroari emandako arretaren kalitatea" izeneko atalean baloratuko dira (ikus klausula administratiboen pleguko IV. eranskina – Esleitzeko irizpideak). Hori horrela, enpresa lehiakideek, azalpen-txosten bat sartu beharko dute beren eskaintzaren 2. gutun-azalean; eta txosten horretan, balioetsi beharreko alderdiak adieraziko dituzte. Honako hauek, gutxienez:*

- *Kontratua kudeatzeko eta solaskide izateko izendatu den pertsona, harremanetan jartzeko modua (hala badagokio, telefonoa adierazita), izango duen laguntzaren egitura, eta lantokiaren kokalekua.*
- *Bezeroa artatzeko bulegoen sarea, Gipuzkoan eta aldameneko lurraldeetan.*
- *Bezeroa artatzeko beste bide zenbait: telefonoa, webgunea, etab.*
- *Gorabeherak kudeatzeko zerbitzua.*
- *Bestelako zerbitzuak: fakturazioa eta kontsumoen datuak".*

2016ko azaroaren 25eko balioespen-irizpidean bost lizitatzailleetako bakoitzak proposatutako bezeroari emandako arreta deskribatu, alderatu eta balioesten da eta, ondorioztatzen denez, IBERDROLA, EDP eta GAS NATURAL enpresen eskaintzak berdinak dira eta 20 puntu ematen zaizkie; ENDESA enpresaren eskaintza apalagoa da adierazten diren arrazoiak direla medio eta,

*La empresa adjudicataria, a través de su gestor, proporcionará a cada entidad asistencia y asesoramiento en los aspectos mencionados en el párrafo anterior.*

*La empresa adjudicataria informará de la tarifa a contratar para sucesivos suministros con objeto de minimizar el coste de los accesos a la red, así como otros parámetros que tengan incidencia en el coste del kWh.*

*El licitador deberá explicar en su oferta la posibilidad de envío de ficheros con la información de consumos y facturación. Asimismo se indicará y, en su caso, explicará si se ofrece este tipo de informaciones vía Internet.*

*Las ofertas recibidas serán valoradas en el aspecto de "Calidad de atención al cliente" (ver Anexo IV del Pliego de cláusulas administrativas – Criterios de adjudicación), por lo que las empresas licitadoras deberán incluir en el sobre 2 de su oferta una memoria explicativa incluyendo los aspectos a valorar que serán al menos los siguientes:*

- *Persona designada para la gestión e interlocución, perfil, canal de contacto (en su caso, nº de teléfono), estructura de apoyo y ubicación de su centro de trabajo.*
- *Red de oficinas de atención en Gipuzkoa y territorios limítrofes.*
- *Otros canales de atención al cliente: telefónica, web, etc.*
- *Servicio de gestión de incidencias.*
- *Otros servicios: facturación y datos de consumos".*

El informe de valoración de fecha 25 de noviembre de 2016 describe, compara y valora la atención al cliente propuesta por cada uno de los cinco licitadores, y concluye que las ofertas de IBERDROLA, EDP y GAS NATURAL, a las que otorga 20 puntos, son equivalentes; la de ENDESA es algo inferior por las razones que indica, y por eso le concede 15 puntos; y "en el extremo



horregatik, 15 puntu ematen zaizkio; eta “kontrako muturrean, MULTIENERGÍA enpresaren eskaintza askoz ere apalagoa da ematen duen informazioa nahiz bertako edukia urria eta zehaztugabea delako”, eta 3 punturekin balioesten da.

Azken balioespen-txosten horri dagokionez, proposatzen den laguntzaren egituraren adierazpen oso anbigua egiten dela adierazten da, eta ezin izan da egiaztatu Donostian adierazten den helbidean MULTIENERGÍA VERDE enpresaren delegazio edo bulegorik dagoenik, ezta beste bulego komertzialik ere.

Halaber, azpimarratzen da nabarmena dela kontratuaren kudeatzailea izango litzatekeenaren eragiketen oinarriari dagokionez ez deus aipatzea, gainerako lizitatzailleek ez bezala, Zaragozan kokatuta dagoen enpresa bat dela kontuan hartuta. Esparru-akordio honetatik 63 kontratu aterako dira atxikitako beste hainbeste erakunderekin. Horren ondorioz, kudeaketa ugari egingo dira erakunde bakoitzaren arduradunekin. Derrigorrezkoa edo komenigarria izango da horietako asko modu presentziazkoan ebaztea. Horrenbestez, kudeatzaile komertzialaren gertutasuna aintzat hartzeko balio bat da.

Hori esanda, ez dago gogoratu beharrik formula bidez automatikoki ebaluatzeak ez diren irizpideen arabera proposamen bat balioesteko kontuan izateko judiziozko elementuak izaera teknikoko alderdietan oinarritzen direla. Diskrezio teknikoaren marjina erabiliz eskumeneko organoek egindako balioespenen berrikuspenera alderdi formaletara mugatu behar da, hots, lehia- edo prozedura-arauetara, eta arbitrariotasuna, diskriminazioa edo errore materialik ez gertatzea zaindu behar da. Alderdi horietatik at, berrikuspenera egiten duen organoak balioespen horren emaitzak errespetatu behar ditu.

Doktrina horrekin bat etorritik, Auzitegiak ez du uste errore materialik, arbitrariotasunik edo diskriminaziorik gertatu denik kontratazio- organoak “bezeroari emateko arretaren


contrario, la oferta de MULTIENERGÍA es claramente inferior tanto en cuanto a la escasez e indefinición de la información que aporta como a su contenido”, valorándola en 3 puntos.

Con respecto a esta última el informe de valoración señala que hace una indicación muy ambigua de la estructura de apoyo que propone, y que en la dirección que indica en San Sebastián no se ha podido verificar la existencia de ninguna delegación u oficina de MULTIENERGÍA VERDE ni otra oficina comercial.

Resalta también que es relevante la omisión que, a diferencia del resto de los licitadores, esta empresa hace de la base de operaciones de quien sería el gestor del contrato, teniendo en cuenta que se trata de una empresa radicada en Zaragoza. De este acuerdo marco van a derivarse 63 contratos con otras tantas entidades adheridas, los cuales van a dar lugar a múltiples gestiones con los responsables de cada entidad. Muchas de ellas será necesario o conveniente resolverlas de forma presencial, por lo que la cercanía del gestor comercial es un valor a considerar.

Dicho lo cual, no es preciso recordar que los elementos de juicio a considerar para valorar una proposición con arreglo a criterios no evaluables de forma automática mediante la aplicación de fórmulas descansan sobre cuestiones de carácter técnico. La revisión de valoraciones realizadas por los órganos competentes en uso de su margen de discrecionalidad técnica debe limitarse a los aspectos formales, tales como las normas de competencia o de procedimiento, y a cuidar de que no se incurra en arbitrariedad, discriminación o error material. Fuera de estos aspectos, el órgano revisor debe respetar los resultados de dicha valoración.

De acuerdo con esta doctrina, este Tribunal no aprecia que el órgano de contratación haya incurrido en error material, arbitrariedad o discriminación en la valoración del criterio



kalitatea” izeneko irizpidea balioestean.

Egiaz, errekurtsioaren arrazoi hau ez da balioespen-txosteneko argudioak ezeztatzen saiatzekoa berez, eta ez da errekurtsogileak prozedura honetan bezeroari eskaintako arretaren kalitateari dagozkion balizko bikaintasunari buruzkoa ere, eta ez du hura gainerako lizitatzailen eskaintzekin alderatzen ere. Horren ordez, Zarauzko Udaleko teknikari baten txostena aurkeztera mugatzen da, non “bezeroari emateko arretaren kalitatea” balioesten den aipatu Udalak egindako lizitazio batean; txosten horretan, egileak, 9,5 puntu ematen dizkio 10 puntutik MULTIENERGÍA VERDE enpresaren eskaintzari atal horretan, eta 8.5 puntu ematen dizkio EDP enpresari; eta gure kasuan EDP enpresak 20 puntu eskuratu ditu eta MULTIENERGÍA VERDE enpresak 3 besterik ez.

Argudioaren ahultasuna agerikoa da, errekurtsioari buruz kontratazio-organoak egindako txostenean adierazten den moduan. Atxikitako 63 erakunde eta 673 hornidura-puntu barneratzen dituen gas naturalaren hornidurarako esparru-akordioaren lizitazio-prozeduran bezeroari emandako arretaren kalitatearen balioespena alderdi hori Udal bakarrak hornidura-kontratu baten esleipenean egindako balioespenarekin alderatu nahi da. Balioespen-irizpidea ez da modu berean zehazten dagozkion pleguetan, ez da egiaztatzen prozedura batean eta bestean lizitatzaille bakoitzak aurkeztutako eskaintza zehatzak berdinak diren eta, azken batean, ezin zaie balioespena egiteko ardura duten organoei beren lana egiterakoan duten diskrezio teknikoaren marjina kendu.

#### **ZORTZIGARRENA.-**

Azkenik, errekurtsogileak AKPP pleguaren azaleko 29. atala aipatzen du, zeinaren arabera ez den azpikontratazioa onartzen, eta balioespen-txostenean GAS NATURAL nahiz ENDESA enpresek beren proposamenetan bezeroaren arretarako zerbitzu azpikontratatuak eskaini izana onartu eta, are, goraipatzen dela aurpegiatzen du.

“calidad de atención al cliente”.

En realidad, este motivo del recurso no se dedica propiamente a intentar rebatir los argumentos del informe de valoración, ni se refiere a las supuestas excelencias de la calidad de atención al cliente ofrecida por la recurrente en este procedimiento, ni la compara con las ofertas de los demás licitadores. En su lugar se limita a aportar un informe de una técnica del Ayuntamiento de Zarautz en el que se valora la “calidad de atención al cliente” en una licitación realizada por dicho Ayuntamiento; informe en el que su autora propone una puntuación de 9,5 sobre 10 para la oferta de MULTIENERGÍA VERDE en este apartado, y 8,5 puntos para la de EDP, mientras que en nuestro caso EDP ha obtenido 20 puntos y MULTIENERGÍA VERDE solo 3.

La endeblez del argumento salta a la vista, como se pone de manifiesto en el informe del órgano de contratación acerca del recurso. Se pretende comparar la valoración de la calidad de atención al cliente en el procedimiento de licitación de un acuerdo marco para el suministro de gas natural en el que se incluyen 63 entidades adheridas y 673 puntos de suministro, con la valoración de ese aspecto en la adjudicación de un contrato de suministro para un solo Ayuntamiento. Ni el criterio de valoración se define de manera idéntica en los respectivos pliegos, ni consta que las concretas ofertas presentadas por cada licitador en uno y otro procedimiento fueran iguales, ni puede privarse, en fin, a los órganos encargados de valorarlas del margen de discrecionalidad técnica con el que cuentan a la hora de realizar su trabajo.

**OCTAVO.-** Por último la recurrente alude al apartado 29 de la carátula del PCAP, conforme al cual no se admite la subcontratación, y reprocha al informe de valoración que admita e incluso ensalce que tanto GAS NATURAL como ENDESA oferten en su proposición servicios de atención al cliente subcontratados.



Adierazten duenez, bezeroari emateko arreta bezain alderdi garrantzitsu batean pleguetan onartzen ez den zerbitzu azpikontratatu bat eskaintzen da, eta ez-betetze horrek eskaintzak baztertzea eskatzen du.

Haatik, egia esatera, aipatutako txosten horretan ez da azpikontratazioaren inguruko inolako aipamenik egiten lizitatzailerik bakar baten kasuan ere. Bezeroaren arretarako zerbitzua emateko bakoitzak proposatutako bitartekoak laburbildu eta balioestera mugatzen da.

Bere memoria teknikoan GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. sozietateak jakinarazten duenez, bezeroari emateko beste arreta-zerbitzu batzuen artean, Gipuzkoan lau bulegoz osatutako sare bat dauka (bezeroaren arretarako zentroak kolaboratzaileekin), hain zuzen, Donostian (bi), Irunen eta Lasarten kokatuta, eta horien helbideak ematen ditu.

Ez alferrik, lizitatzailerik gas naturala merkaturatzera dedikatzen diren enpresak dira, legezko beste betebeharrak batzuen artean, azken kontsumitzaileekin kontratatutako hornidurarekin lotutako edozein gorabeherari buruzko kexa, erreklamazio, informazio-eskaera edo jakinarazpen artatzeko zerbitzua emateko betebeharrak dutenak [hidrokarburoen sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 81.2.n) artikulua].

Halaxe da, pleguetan ez da azpikontratazioa onartzen, baina esleipendunaren eskaintzan ez dago kontratua partzialki hirugarrenekin itunduta gauzatuko duela pentsarazten duen ezer, behin esparru-akordiora atxikitako erakundeekin dagozkion hornidura-kontratuak formalizatu ondoren, SPKLTBko 227. artikuluan araututako moduan.

Kontratazio-organoaren txostenean azaltzen den moduan, GAS NATURAL enpresaren eskaintzan argi geratzen da arreta komertziala, administratiboa eta gorabeheren ingurukoa adierazten diren berezko bitartekoekin egingo dela oso-osorik. Bere

Aduce que en un aspecto tan relevante como es la atención al cliente se ha ofertado un servicio subcontratado no admitido por los pliegos, y que este incumplimiento debe suponer la exclusión de las ofertas.


Lo cierto es, sin embargo, que el informe en cuestión no hace la menor referencia a subcontratación alguna por parte de ningún licitador. Se limita a resumir y valorar los medios propuestos por cada uno para prestar el servicio de atención al cliente.

En su memoria técnica GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. informa de que, entre otros servicios de atención al cliente, dispone en Gipuzkoa de una red formada por cuatro oficinas (centros de atención al cliente con canales colaboradores) localizadas en San Sebastián (dos), Irun y Lasarte-Oria, cuyas direcciones indica.

No en vano las licitadoras son empresas dedicadas a la comercialización de gas natural que, entre otras obligaciones legales, deben disponer de un servicio de atención a las quejas, reclamaciones, solicitudes de información o comunicaciones de cualquier incidencia en relación con el suministro contratado con los consumidores finales [artículo 81.2.n) de la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del sector de hidrocarburos].

Efectivamente la subcontratación no está admitida en los pliegos, pero no hay nada en la oferta de la adjudicataria que permita deducir que, una vez formalizados los correspondientes contratos de suministro con las entidades adheridas al acuerdo marco, vaya a concertar con terceros la realización parcial del contrato, en los términos regulados en el artículo 227 TRLCSP.

Como explica el informe del órgano de contratación, en la oferta de GAS NATURAL queda claro que toda la atención comercial, administrativa y de incidencias va a ser realizada con los medios propios que se indican. De la simple mención en su oferta de



eskaintzan zentro kolaboratzaileak aipatzen dituelako ez dago ondorioztatzerik esleipendunak horiek erabiliko dituenik esparru-akordio honetatik eratorritako kontratuetan; are gutxiago, hori horrela izanik ere, horrek SPKLTBko 227. artikuluan aipatzen den azpikontratazioa suposatzen duenik.

**BEDERATZIGARRENA.-** “Bezeroari emandako arretaren kalitatea” izeneko irizpidea balioesteko txostenari dagokionez errekurtsogileak esaten duenez *“erantzukizunak, are penalak, eskatzeko eskubidea gordetzen du dagokion Justizia Organoaren aurrean, izan ere, nekez justifika daiteke ez zekiela irizpena bidegabea zela gertakarien sinpletasuna kontuan hartuta”*.

Halaber, uste du, txostenaren argudiaketa oinarritzat hartuz, ez dela beharrezkoa *“argudio sakonetan luzatzea egilearen hitzetatik ondorioztatzen den subjektibotasuna ikusteko”* eta errekurtsogileak eskainitako zerbitzuari buruz egindako aipamenen harira uste du *“horoskopo eta tarotaren eremuko profesional batenak dirudite irizpide objektiboa duen funtzionario publiko batenak baino gehiago”*.

Azkenik, adierazten du *“funtzionario publiko batek balioespen-txosten batean halako arbitrariotasunak zuriaren gainean beltzez ipintzea, kasurik onenean ere, jurisprudentzia baketsuaren berri ez dakielako gertatzen dela”*.

Lizitazioaren emaitza mesedegarria izan ez zaiolako errekurtsogilea atsekabeturik egoteak ez dio baimenik ematen eskaintza teknikoak balioesteko ardura duen funtzionario publikoa begirunerik gabe tratatzeko, onartezinak iruditzen zaizkigun espresioak erabiliz.

Horri inpuñazioa eskatzeko baliatu diren arrazoen arintasuna gaineratuta, Auzitegi honen ustez fede gaiztoa dago errekurtsioa jartzean eta, SPKLTBko 47.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, errekurtsogileari 1.000 euroko isuna jartzen zaio.

estos centros colaboradores no cabe inferir que la adjudicataria vaya a utilizarlos en los contratos derivados de este acuerdo marco, ni menos aún que, aunque fuera así, eso constituya un supuesto de subcontratación del artículo 227 TRLCSP.

**NOVENO.-** Refiriéndose al informe de valoración del criterio de “calidad de atención al cliente”, la recurrente dice que *“se reserva el derecho de depurar responsabilidades, incluso penales, ante el Órgano de Justicia preceptivo, ya que difícilmente podría justificarse que no sabía que el dictamen era injusto debido a la simpleza de los hechos”*.

Cree también, en relación con la motivación del informe, que no es necesario *“extenderse en profundos argumentos para apreciar la subjetividad que desprenden las palabras”* de su autor, cuyos comentarios acerca del servicio ofertado por la recurrente le parecen *“más propios de un profesional del área del horóscopo y del tarot que de un funcionario público con criterio objetivo”*.

Afirma, en fin, que *“alguno de los motivos de que un funcionario público llegue a ser capaz de poner en negro sobre blanco este tipo de arbitrariedades en un informe de valoración, pudiera deberse, en el mejor de los casos, a que desconoce la pacífica jurisprudencia”* que cita.

Que el recurrente esté contrariado porque el resultado de la licitación no le ha sido favorable no le autoriza a faltar al respeto al funcionario público encargado de la valoración de las ofertas técnicas, utilizando expresiones que consideramos inaceptables.

Eso, unido a la liviandad de los motivos de impuñación esgrimidos, conduce a este Tribunal a apreciar la existencia de mala fe en la interposición del recurso y a imponer a la recurrente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 47.5 TRLCSP, una multa de 1.000



euros.

Ondorioz, kontratazio alorreko En su virtud, este Tribunal Administrativo  
errekurtsoetarako Foru Auzitegi Foral de Recursos Contractuales  
Administratiboak

### ERABAKITZEN DU

### ACUERDA

**LEHENENGOA.-** Ezestea MULTIENERGÍA VERDE S.L. enpresak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MULTIENERGÍA VERDE S.L.

**BIGARRENA.-** Etleipen egintzaren etenaldia indargabetzea.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsogileari 1.000 euroko isuna ezartzea.

**TERCERO.-** Imponer a la recurrente una multa de 1.000 euros.

SPKLTBko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2017ko otsailaren 23a / San Sebastián, 23 de febrero de 2017**